

## Funtsezko elkarteak:

Gure enpresak behar dituen elkarteak online aplikazio batzuk eta bankuak dira. Enpresa hau aplikazio batean datza eta horregatik aplikazioa sortzeko *app store*-en diseinatzeko aurkitu ditzakegun aplikazioak erabiliko ditugu gainera bertan aplikazioa argitaratuko dugu. Horrez gain, behar beharrezkoa dugu bankuen laguntza dirua paper garrantzitsua daukalako.

Hierarkizatu beharko bagenitu gure funtsezko elkarteak horrela egingo genuke:

- Adriana Lopez→ Aplikazioa diseinatuko du. Diseinu digitala, diseinu web eta branding ikasi du eta Madrilen bizi da. Hau funtsezkoa izango da gure proiektua aplikazioan oinarritzen delako beraz aplikazioaren diseinua behar-beharrezkoa izango da.
- App store→ aplikazioa sortzeko behar dugu. Hemendik gure *App*-aren diseinua egiteko aplikazio aterako dugu eta gure aplikazioa publiko guztiari eskaintzeko gunea izango da. Gainera aplikazio honetan App-ak gomendatzeko atal bat dago eta horrekin pertsona gehiagori heltzeko aukera emango digu.



- Sarea→ Aplikazioa argitaratzeko bide printzipala izango da, eta horrela gizartean zabaltzeko aukera izango dugu.
- Sare sozialak→ Pertsona gehiago erakartzeko aukera bikaina izango da. Aplikazioa sustatzeko erabili daitezke Instagram, twitter edo horrelako sare sozial batzuk.



- Bankuak→ Diru ordainketak egiteko beharrezkoa izango da eta gure enpresak aplikazioaren bidez ordaintzeko aukera izatea gustatuko litzaigunez bankuak beharko ditugu. Hori Sabadell bankuaren bitartez bideratuko dugu.
- Behar duten pertsonen laguntzeko ematen ditugun zerbitzuen tokiak→ Izan daitezke norbaitek erosketak etxera eramatea eskatzen dulea, horretarako supermerkatuak beharko dira, edo farmaziako medikamentuak erosteko laguntza eskatzen badu farmaziak beharrezkoak izango dira. Horrela eskatzen diren laguntzak ahalbidetzen duten toki guztiekin.

